

## **ABEEEaren aplikazioan genero diskriminazioagatik Tubacex zigortzen duen epaia irmoa deklaratu du Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak**

Zaintzagarriko lanaldi-murrizketan zegoela, enpresak gainerakoei baino eragin handiagoz aplikatu zion enplegu erregulazio espedienteak.

Beste behin ere, Tubacexen enpresa-politika zalantzan jarri da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak beste epai bat eman duelako (irmoa dena), Tubacex-en azken ABEE-ren aplikazioan generoagatik diskriminatua izan den langile bati oinarritzko eskubide bat urratu zaiola aitortzen duena.

Langilea seme-alabak zaintzeko lanaldi-murrizketan aurkitzen zen, eta koordinatzailearen lanbide-kategoria du, batez ere gizonak betetzen dutena. Tubacex-ek, bere azken Aldi Baterako Enplegu Erregularizazio Espedientearen aplikazioan, pertsona honentzat, ABEEE-ren eragina handiagoa izatea erabaki zuen. Beraz, horrek kalte ekonomiko erantsia ekarri zion bere egoerari, enpresak aski ezagutzen zuena.

Epaiak berak aitortzen du, azken ABEEE-ren eragina emakume langilearentzat neurrigabea eta diskriminatzailea izan zela generoagatik eta familia-kontziliazioko neurrietara egokitzeagatik.

LABentzat, epai honek urte hauetan zehar Tubacexen ohiko praktika izan diren eta kasu askotan auzitegietan salatu ez diren erabaki diskriminatzaileen aurrean jarri ditugun salaketak aitortzen ditu. Tamalgarria da Tubacex bezalako enpresa bat, Eusko Jaurlaritzaren laguntza mota guztiak dituen, horrelako gertaeren adibide izatea.

Horrek ere agerian uzten du Industrian oso orokorra den errealitate bat, sektoreko emakume langileei zuzenean eragiten diena; izan ere, emakume gehienak dira kontziliazio baimen horiei heltzen dietenak. Baina bizitza eta lana uztartzeko berdintasuna eta babesa bultzatu beharrean, emakumeak, horregatik, diskriminatuak dira.

LABetik epai hau publiko egin nahi dugu eta Tubacex-eko Zuzendaritzaren erabakien larritasuna agerian utzi. Enpresa-abusu eta -diskriminazio oro judizialki eta publikoki salatzen jarraitzeko konpromisoan berresten gara. Era berean, Tubacex-i era honetako edozein jokabide edo ekintza bertan behera uzteko eskatzen diogu irmoki.

**Euskal Herrian, 2023ko abenduaren 22an**